

7.BALIOTAN HEZTEA: BIZIKIDETASUNA, BAKEA, HEZKIDETZA,... HIRITAR HEZKUNTZA

7.1. Esparru orokorra

Gizaki guztiok dugu bestek gu hezteko eskubidea, baina baita gainerakoen heziketan laguntzeko betebeharra ere. Eskubide eta betebeharrak gisa adierazitako hitz horiek garrantzi handia dute bakean bizitzen eta garatzen irakatsiko duen gizartearen oinarria finkatzeko, banatuta dagoen eta etengabeko aldaketa sakonen mendeko den munduan.

Hezteak pertsonaren potentzial sortzailea piztea esan nahi du, berorren gaitasun guztiak garatzea eta onartzeko eta ulertzeko jarrerak sortzea. Hezkuntza giltzarri da bakea lortzeko, orekatuagoa eta ez hain asimetrikoa izango den esparrua egonkortzeko, guztiok elkarrekin bizitzeko, desberdinak garen arren, justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna bezalako printzipio demokratikoak lokarritzat hartuta.

Heztea, bizitza osoan zehar gizabanako guztiei laguntzeko aske izaten, jakiten, sortzen eta elkarrekin bizitzen. Heztea, aurrekoengandik jaso dugun guztia eta etorkizuneko belaunaldiak utzi behar dieguna partekatzea eta zaintzea bezalako printzipioak irakasteko. Hezkuntza da gizakion gogamenen bake iraunkorra eraikitzeko bitartekoa. Beste bitartekoa, aldiz, komunitatea dugu, eta horrexegatik jo behar dugu berriz komunitatearen kontzeptura, bizikidetasunera, bizitzera eta partekatzerara, horixe baita "bakea".

Ezinbestekoa da giza prozesu guztiak dagokien testuinguru sozial eta historikoan kokatzea. Hori hala bada, hezkuntza-prozesuetan ere horrelaxe egin beharko da. Eskolak leku berezia izan du hezkuntza-jardunean historian zehar, prozesu horiek bertan gauzatzen direlako. Kontuan izan behar dugu, gaur egungo euskal gizartean, informazioaren gizartean, eskola ez dela jada ezagutza transmititzeko eta sozializatzeko eragile nagusia. Izan ere, ikasleek ikasteko hainbat testuingurutan har dezakete parte, eskolatik kanpo, eta hori dela eta, eskolakoak eta familiakoak ez diren eta horietatik urrun dauden balio eta portaeren eragin handia izan dezakete.

Egoera berri hori aintzat hartuta, ezinbestekoa da Euskal Hezkuntza Sistemak ikasleei behar dituzten estrategiak eskaintzea, eragile aktibo eta kritiko izateko eta nor bere garapenarekiko eta bere ingurunearen garapenarekiko konpromisoa hartzeko. Horretarako, ordea, balio propioak eta irmoak eraiki behar ditu.

Gero eta azkarragoak eta sakonagoak diren gizarte-aldaketei aurre egiteko, nahitaezkoa da ikasleek bizitzako alderdi guztietan —pertsonalean, afektiboan, sozialean eta lanaren ingurukoan— arrakastaz moldatzeko oinarritzko trebetasunak lantzea. Horregatik, garrantzitsua da oraindik ere honakoak sustatzea eta jorratzea: emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna, nor bere burua zaintzea, gainerako pertsonak zaintzea, ingurumena zaintzea, eta gizartean arduraz eta eraldatzeko helburuarekin parte hartzea.

Euskal Herrian bizikidetasunean hezteko, ezinbesteko eskakizun da eskolari buruz berriz hausnartzea. Horretarako, beharrezkoak dira errealitatea interpretatzeko esparru berriak eta bestelako jarrera eta jardunak. Horretan, gainera, ikastetxe osoak hartu behar du parte, beharrezkoa baita diskurtsoaren eta benetako funtzionamenduaren arteko koherentzia. Hezkuntzaren kalitatearekin du zerikusia eta honakoak ditu ardatz: autonomia, norbanakoa eta taldea haztea, konpromisoa, parte-hartzea eta bizi-kalitatea (ez bakarrik aurrerapena eta ongizate ekonomikoa). Euskal Hezkuntza Sistemarentzat erronka eta zeregin dira harremanak izateko eta komunikatzeko moduak eta boterea izateko eta agintzeko estiloak aldatzeko premia ohartaraztea eta bere jardunarekin bakearen, hitzaren eta adostasunaren kultura sustatzea, elkarrizketarako irekia, bidezkoa eta demokratikoa izango den euskal gizartea eraikitzen laguntzeko.

Hezkuntza-sistemak du bizikidetasun demokratikoaren sena izango duten pertsonak prestatzeko erantzukizuna. Horrek eskakizun du eskolako errutinekin batera doan hezkuntza-jarduna berriz aztertzea, baina baita honakoak zuzenean landuz hezteara ere: giza eskubideak, justizia, genero, arraza edo erlijioa direla eta sortutako diskriminazio ororen aurkako borroka, estereotipoak baztertzea, besteak onartzea, kulturartekotasuna, ahulago direnekiko elkartasuna...

Hori dela eta, alderdi hiritarrak lantzeko eta bidezko esparrua adosten ikasteko aukera eskainiko duen eskola behar dugu, banako nahiz taldeko proiektu desberdinak daudela ohartuz eta desberdintasun pertsonalak eta kulturalak errespetatuz. Hori izango da pertsonak zuzenak eta elkarrizketarako irekiak, tolerantetakoak eta solidarioetakoak izateko bidea. Pertsona horiek elkarrekin egingo dute lan pertsonen eta komunitateen arteko arazoak konpontzeko garaian eraso, indarkeria eta bidegabekeriara joko ez duen ingurunea sortzeko.

Euskal Herriko haurrek eta gazteek jakin behar dute balio demokratikoak ez direla hitz hutsak, aitzitik, benetako edukia, eduki erreala dutela, eta gizarteak aurrera egin ahala aldatzen direla, betiere une oro babestuz gizaki guztien askatasuna eta giza duintasuna, oinarrizko giza eskubideek islatzen dutena.

Gaur egungo euskal gizartean, indarkeria, giza eskubideak suntsitzen dituen, identitatea eta elkartasuna bezalako gatazkei erantzuteko bitarteko gisa agertzen denez, gatazka horiek aldatzen lagundu behar dugu, bakerako kultura sortzeko xedearekin.

Pertsonak bizitzarako oinarrizko gaitasunetan trebatzeak bide emango digu errespetuan eta bizikidetasun positiboan oinarritutako harremanak izango dituen mundua, gatazkak nor bere ardurak hartuz eta modu positiboan konponduko eta/edo aldatuko dituen mundua, sortzeko.

Gure gizartean oraindik ere handiak dira hutsuneak baliotan hezteari eta bizikidetasunerako eta bakerako hezteari dagokienez.

Hausnarketa lasaia eta argia egin behar da edozein motatako indarkeriari (emakumezkoen aurkakoari, berdinaren artekoari, gerrei) eta bidegabekeriei aurre egiteko, hots, errespetuan eta elkartasunean oinarritutako gizartearen oinarriak sortzeko.

Askotan aldaketa kosmetiko deiturikoak gertatzen dira, aldaketa horiek ez baitira aldaketa sakon izango hezkuntza-jardunaren azpian dauden sinesteak esplizitu bihurtzen diren arte. Zuhur eta eraginkortasunez jardun nahi badugu, gaur egungo egoera erroetatik bertatik aztertu behar dugu. Horrek gure kulturaren irakurketa kritikoa eginaraziko digu.

Gaur, XXI. mendean, ezagutzaren gizartean, sozializazio-eredu desberdinak erabiltzen dira oraindik ere neskentzat eta mutilentzat. Oraindik nagusi diren gizarte antolatzeak eta balioak, gaitasunak, funtzioak, ardurak eta zereginak sexuaren arabera esleitzeko ereduak ari dira eragozten berdintasunean oinarritutako gizarte eraikitzea eta, hortaz, desberdintasunak eta botere-harremanak sortzen dituen egitura hierarkizatua ari gara sortzen. Nahitaezkoa da esplizituki eta sistematikoki aztertzea neska-mutilen arteko harremanetarako eredu bereizleak, horiengan eragina dutenak, baita horrek eguneroko bizitzan sortzen dituen desberdintasunak ere.

Hori dela eta, ezinbestekoa da eredu soziala aztertzea, eta horren baitan baita eskola ere, legitimatu egiten duelako estereotipo maskulinoari (gizonezkoen esleitutakoari) nagusitasuna ematen dion eta estereotipo femeninoari (emakumezkoen esleitutakoari) lotutako gaitasun, balio eta jarrerak gutxiesten dituen balio-sistema, historian zehar eta

esparru guztietan emakumezkoek gizateriaren garapen positiboari egindako ekarpen guztiak sistematikoki ikusezin bihurtu, ukatu eta balioz gabetu dituena.

Eskolak ezin du mugatu ikasleak nagusi diren balioetan sozializatzen. Aitzitik, hezteko funtzioa izaki, balio horiek etengabe berrikusi eta kritikatu behar ditu, horiek deuseztatzen laguntzeko, beharrezkoa denean, eta ikasle guztiak lantzeko bizitzarako gaitasun eta trebetasun guztiak, horien sexu biologikoa edozein delarik ere.

Hezkidetzan neskek nahiz mutilek bizitzarako trebetasunak garatzen datza, espazio publikoak eta pribatuak partekatu ahal izateko, nor bere ardura hartuz. Neska-mutilak hezterakoan, dagokienean inolako mendetasunik (ez zaintzaren ingurukorik, ez emozionalik edo ekonomikorik...) sortuko ez duten harremanak izatea ahalbidetzeko moduan jardun behar dugu eta autonomia pertsonalean oinarrituta elkarrekiko mendetasun osasungarria eta heldua bizi ahal izatea sustatu behar dugu.

Hezkidetzan printzipio etikoetan eta justizia, elkartasuna eta identitate-askatasuna bezalako balioetan dago oinarrituta:

- Justizia: inor ez gailentzea inori, bi sexuen arteko zuzentasuna (norberari dagokiona ematea, berdindu arte, beharrezkoa denean): tratu, gaitasun eta balio berdina, hortaz, aukera berdina.
- Elkartasuna eta lankidetzaren *versus* lehia: nor bere ardura hartzea, espazio publiko eta pribatuak partekatzea, sinergiak eta sareak sortzea, talde-lana eta adostasuna.
- Identitate-askatasuna: subjektu autonomo eta kritikoa gisa garatzeko aukera, generoaren inguruko presio kulturalak gaindituz.

Hezkidetzan funtsatutako hezkuntza-sistemak ikasleen garapen pertsonal eta sozial osoa sustatzea du helburu, bere asmo eta jardunaren baitan. Ikasleek bizitza ona izateko ezinbestekoak diren trebetasun guztiak garatzea du helburu. Xedea ez da bizirauten irakastea eta ikastea, ongi bizitzen ikastea eta irakastea baizik, baita bizitza on hori guztiek izatea ere. Hauxe izango litzateke aipatutako bizitza on hori: nor bere bizi-proiektua egitea eta abian jartzea, berorren esparru guztien arteko harmonian eta bizitzan zehar sortuko diren egoeretan moldatzeko eta horiei erantzuteko gaitasunarekin.

Bestalde, hezkuntza ez da intemporal, une historiko eta testuinguru geografiko eta sozial jakin batean txertatzen baita. Gaur egungo euskal testuinguru soziokulturalean erronka berriei, orain arte ezezagun genituen egoera berriei, egin behar diegu aurre, eta horiek hain egonkorak eta seguruak ez diren eta zalantza-maila handia duten testuinguruetan bizitzera behartzen gaituzte. Segurtasunik ezak esparruak etengabe hausnartzera eta erreferentziako parametro berriak bilatzera garamatza, nahiz eta jakin laster pentsatu beharko ditugula horiek berriz, etengabeko aldaketaren prozesuaren baitan. Alabaina, nola bizi gaituzke, ondo bizi ere, esparru berri honetan? Zein gaitasun eta trebetasun garatu behar dituzte ikasleek testuinguru berri honetan BIZITZEKO, eta ez bizirauteko bakarrik?

Honakoak lirateke, OMEren arabera, bizitzarako trebetasunak: "*jokabide egokia eta positiboa izatea eta eguneroko bizitzako eskakizun eta erronkei eraginkortasunez aurre egitea ahalbidetuko diguten gaitasunak*". Horien artean hiru multzo handi bereiz daitezke: nor bere buruaren inguruan dituen trebetasunak (nor bere burua ezagutzea, zaintzea eta arautzea...); besteen inguruan ditugun trebetasunak (enpatia, zaintza, elkartasuna, komunikatzeko gaitasuna eta gatazkei heltzeko gaitasuna...); testuinguru zabalagoaren inguruko trebetasunak (ekologia, parte-hartze soziala eta hiritarra, hiritartasuna...).

Nazioarteko hainbat agiri eta txostenek adierazi dute hezkuntza-sistemak funtsezko eragile direla hiritartasunerako eta demokraziarako hezteko eta gizarte kohesionatu eta bidezkoa eraikitzeko ezinbesteko diren oinarritzko balioetan hezteko.

Honakoa dio horren inguruan Euskal Eskola Publikoaren legeak: *Eskola neska-mutilak elkarrekin bizitzeko, sozializatzeko eta prestatzeko lekua da. Hortaz, eskolak zeregin garrantzitsua izan behar du belaunaldi berrien heziketa zedarrituko duten faktoreen multzoan, eta ikasleak gizalegean oinarritutako balioetan hezteko ahalegina egin behar du. Eta, horretarako, honakoa proposatzen du: Eskola ezin hobeto errotu behar da berorren eragina izango duen gizarte-ingurunean, kokaleku duen hiriko auzoan, bertako ikasleei dagokien herrian, landa- nahiz hiri-ingurunean, EAEn kokatutako mota guztietako industria-egituretan edo egitura sozioekonomikoetan”.*

LODEk eta LOGSEk hezkuntzaren xede gisa proposatu zituzten bizikidetasunarekin lotura duten balioak: errespetua, tolerantzia, askatasuna, elkartasuna...

Gaur egungo hezkuntza-sistemek gizarte-aldaketaren azkartzeak eragindako erronka berriei egin behar diete aurre, azkartze horrek aldaketa sakona izan duelako pentsamoldeetan, balioetan eta ohituretan, ezagutzaren gizarte berrian, izan ere, gizarte horretako ekonomia- eta produkzio-ereduek ere historian inoiz izan ez diren bezalako aldaketei egin behar diete aurre. Horrezaz gain, jakin badakigu azkeneko hogeita hamar urteetan benetako hezkuntza-iraultza gertatu dela, eta iraultza horrek Europa osoko hezkuntza-sistemen ikusmoldeak, helburuak eta planteamenduak aldatu dituela.

Delors txostenari jarraiki, hezkuntzaren lau zutabeek (ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, izaten ikastea ditugu horiek) zedarritzen dute bizitzarako ezagutza eta trebetasunak, euskal hezkuntza-sistemak ikasle guztiei ahalbidetu behar dizkienak, zein izango diren zehazteko balioko duen ildoak.

Helburua da ikasle guztiek lortzea ezagutzaren gizarte berrian parte hartzeko aukera eskainiko dien mailarik hoberena, ikaslearen egoera pertsonala edo/eta soziala edozein dela ere, 2000. urteko Europako Kontseiluaren ondorioen arabera. Maila horiek indarrean daude oraindik eta 2010erako finkatutako Europako hezkuntza-sistemen helburuetan hartzen dira barne, zabal hartu ere. Honela dio helburu horietako batek: *"Eskola-komunitatearen baitan benetan balio demokratikoetan eta parte-hartze demokratikoan oinarritutako ikaskuntza sustatzen dela zaintzea, pertsonak hiritartasun aktiborako prestatzeko xedearekin"*.

7.2. Azken urteetan harturiko neurriak

Euskal Autonomia Erkidegoan iraunkorra izan da bizikidetasunaren eta bakearen inguruko kezka, eta egun ere halaxe da.

1. Erakundeek Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren ekimenez heldu zioten gai honi 1999an, "Bizikidetasunerako hezte" programaren bidez, hain zuzen ere. Ondoren lehentasunezko ildo izan zen 2003-2006 hirurtekoan, "Bizikidetasunerako eta bakerako hezte" eta "Bizitzarako ezagutza eta trebetasunak" programekin.
2. Horren ondorioz eta aipatutako programak aplikatuz, **prestakuntza-jarduera** ugari egin dira irakasleentzat:
 - Ikastetxeetan bertan prestatzeko proiektuak.
 - Irakasleak prestatzeko Garatu Planaren baitan eskainitako ikastaroak. Ikastaro horiek bizikidetasuna gelan eta ikastetxean lantzeko moduari,

komunikatzeko eta gatazkak konpontzeko trebetasunei, bitartekaritzari, berdinen arteko tratu txarrak prebenitzeari, bizitzarako trebetasunei eta abarri buruzkoak dira.

- 2001ean **Bizikidetasunerako Hezteari buruzko I. Biltzarra** egin zen. Bertan estatuko, Europako eta Euskadiko adituek hartu zuten parte eta arlo honetan ikastetxeek izandako esperientzia ugari ezagutzeko egokiera izan zen.
 - Horrezaz gain, EHUren Uda Ikastaroen baitan, gai honen inguruko bi ikastaro egin dira: "Bizikidetasunerako heztea" 2002ko udan eta "Bizikidetasunerako eta bakerako heztea Euskadin, gaur, 2004an" aurtengoan.
 - Laguntzarako zerbitzuek, berritzeguneek, mintegiak, jardunaldiak, jardunbide egokien trukeak eta abar antolatu dituzte.
 - Gurasoen elkarteek ere hainbat prestakuntza-ekintza antolatu dituzte.
 - Telebista autonomikoan, aldiz, gatazkei positiboki aurre egiteari buruzko hainbat saio eman zituzten, IKUSGELA programan, gazteei eskainitakoan.
3. Programa horiek direla bide eta irakasleak sentsibilizatu eta prestatu ostean, berriztapen-proiektu ugari egin dira azkeneko 3 urteetan ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzakoetan nahiz Bigarren Hezkuntzakoetan, ikastetxe publikoetan zein itunpeko ikastetxeetan. 2002/2003 ikasturtean 120 ikastetxek zituzten bizikidetasunerako eta bakera hezteko proiektuak.
 4. 2004/2005 ikasturtearen hasieran, orientabideak eta materialak bidali zaizkie ikastetxeei, erakundeen ekimenez, baina ez bakarrik berdinen arteko tratu txarrei heltzeko eta horiek prebenitzeko, baita bizikidetasun positiboa eta gizatiarragoa sustatzeko ere, hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen artean, hots, ikasle, irakasle eta familien artean.
 5. Dena dela, asko dugu oraindik egiteko. Eginkizun dena hainbestearainokoa izaki, ezinbestekoa da hainbat esparrutan jardutea gogor. Horien artean ditugu hezkuntza-administrazioa, irakasleak, familiak eta gizarte-eragileak. Nahitaezkoa da guztiok jardutea. Ikastetxeetako jardunbide egokiak partekatzea eta ezagutaraztea eta arlo honetako berritasunak abian jartzea dira har ditzakegun bide ugarietako bi.

7.3. Esku hartzeko proposamenak

Nahitaezkoa da baldintza egokiak eskaintzea, gaitasun pertsonal eta sozialak garatzea, balio pertsonalak eta sozialak eraikitzea sustatzea... Gizarte-egitura gizatiarragoa eraikitzeko beharrezkoa den guztia.

- Euskal eskolak erakunde hezitzaile gisa duen erantzukizuna sozializazioa baino harantzago doa. Heztea sozializatzea baino gehiago da. Sozializazioa inguruneko kode eta arauetara, kultura jakin bati lotutakoak izaten direnetera, geldo eta pixkanaka egokitzea da. Apustu kontserbadorea da, beharrezkoa eta

saihestezina, gizakia osatzeko. Sozializazioa egokitzearen bidez egiten da, eta premiak asetzea du xede. Gizabanakoarentzat balio du, baina ez subjektuarentzat.

Hezkuntza, aldiz, subjektu bakarra, bere ekimenez diharduena, osatzean datza. Horrek esan nahi du beharrezkoa dela gaitasun kritikoa, autonomia eta pentsamen propioa izatea. Hezkuntzak kritikoki aztertzen du sozializazio-prozesuan barneratutakoa. Gakoa gizabanako sozializatutik subjektu hezira igarotzean datza. Subjektu edo pertsona bilakatzeko prozesuak hiru aldi ditu: informazioa, ezagutza eta pentsamena.

- **Eskola bakarrik ez.** Inola ere ezin da zalantzan jarri eskolak duen garrantzia. Hori dela eta, kasu batzuetan, ikasle batzuentzat, eskola da balio eta jarrera jakin batzuk bizitzeko eta horiei buruz pentsatzeko ingurune bakarra. Haatik, ezin dugu pentsatu eskolak konponduko dituenik arazo sozial guztiak, irakasleak bakarrik utzita eta gainerako gizarte-eragile guztiek ezikusiarena eginez. Eskolak porrot egingo du, ziur, gizarteak bere egiten ez dituen balio eta jarrera jakin batzuetan hezteko eskatzen badiogu, are gehiago gizarteak horien kontrakoan arabera jarduten badu. Hori, gainera, ez da maila bereko borroka izango, kontrako norabidean jarduteaz gain, ez dituztelako bitarteko berdinak. Izan ere, alde batean ditugu indar handiena duten eta nonahi agertzen diren publizitate-bitartekoak eta bestean, berriz, irakasleen lan isila, askotan ezezaguna izaten dena eta balioesten ez dena.

- **Oinarrizko gizarte-adostasunen premia.** Nahasmena da nagusi. Gizartean ez da adostasunik zer dagoen ongi edo zer gaizki, zer den zilegi edo zer dagoen debekatuta zehazteko garaian. Egoera horrek hezkuntza-irizpiderik ez izatea du ondorio eta, horrek gehiegizko permisibitatea ekarri du berekin zenbaitetan. Ikasleei balio kontrajarriak iristen zaizkie. Batetik, merkatuaren balioak, bere irabazia bilatu eta hori balioarekin mozorrotzen duenarenak, eta, bestetik, etikoak, hezkuntzarenak, garapen pertsonala eta subjektu bakarra osatzea xede dituenarenak. Arrakasta azkarra, itxura, lehia; guztiek balio dute irabazia lortzeko. Horiekin aurrez aurre, eskuzabaltasuna, elkartasuna, giza balioak, benetako GIZAKIA.

Presakoa da gure gizartearen morala argitzea, morala gizarteak onartzen duen eta balio, debeku, eskubide eta betebeharrak jakin batzuk barne hartzen dituen arau-sistematzat hartuta. Hasteko, ezinbestekoa da forma sozial eta estilo berriak finkatzea, beti eta esparru guztietan jartzea zalantzan indarkeria gatazkak konpontzeko bitarteko gisa, eta publikoki eta nabarmen balioestea errespetua, justizia eta elkartasuna bezalako balioak. Horrek eskakizun ditu, batetik, garapen pertsonal positiboa eragozten duten taldeko kultur balio ezarriak gainditzea eta, bestetik, gizartea osatzen duen gizaki orori bere kabuz bizi-programa aukeratzeko, eta balioesten eta onartzen dutela sentitzen —betiere gainerakoak errespetatuz— lagunduko dion guztia sustatzeko hitzarmenak ezartzea.

- **Bizikidetasunerako eta bakerako hezteak.** Eskolak, familiak eta gizarteak oro har beharrezko urratsak egin beharko dituzte haurrek jaiotzen diren unetik bertatik ikas dezaten askatasunean, errespetuan eta elkartasunean bizitzen. Hori presarik gabe eta poliki egin behar da, hezkuntza-prozesu iraunkorrean eta kontzientean, nork bere burua arautzea sustatuko duenean, borondatearen eta ona dena nahi izatearen bidez. Gizarteko kide berriak hezteko —ez bakarrik hasitako lanari ekiteko, baita hori berriz bideratzeko, hobetzeko eta gizatiarrago egiteko ere— talde-proiektu horretan parte hartzeko konpromiso horretan familiak eta, lehen maila, eskolak elkarrekin jardun behar dute, elkar sustatuz.

- **Ikasleen inguruko iguripen handiak izatea.** Pertsona bakoitza zoragarria eta bakarra da. Arazoren bat bada, min eman badu eta abar, ez jarraitu epaitzeko eta zigortzeko ideiei. Ez da delinkuentea, ez da gaiztoa, besterik gabe, beste nolabait

egiten ikasi dezakeen zerbait egin du, eta helduok horretan laguntzeko gaude. Ezinbestekoa da hiritar arduratsutzat jotzea eta horren arabera jokatzeko gaizteekin.

- **Gehien behar dutenak babestea.** Garapen positiborako beharrezkoak diren oinarrizko baldintzak ez dituztenak, arrisku-egoeran dauden herritarrak. Pobrezia daudenak, arazoak dituzten familiak (arazoak ez dira beti ekonomikoak izaten), beren seme-alabei autokontzeptua eraikitzeke beharrezkoak diren afektu-egoera eta jokabide-eredua eskaintzen ez dizkietenak.

- **XXI. mendeko gizarterako pertsonak hezteke Bizitzarako trebetasunak.** Banakako eta taldeko oinarrizko premiei erantzuteke, pertsona bakoitzak dituen bitartekoak mugituz, gogamenaren, gorputzaren, emozionalitatearen, identitatearen eta gizarte-esparruaren garapen harmonikoaren bidez. Gaur egungo gizarteak funtzio berriak eskatzen dizkie hezkuntza-sistemei, gizarteak osatzen dituzten pertsonak erronka berriei aurre egin behar dieten neurrian. Izan ere, pertsona horiek gaitasun eta trebetasun berriak, batez ere maila pertsonal eta sozialekoak —horien artean oso garrantzitsua da erresilientzia—, eskatuko dituzten egoerei egin beharko diete aurre. Gaitasun eta trebetasun berdinak garatu beharko dituzte emakumezkoek eta gizonezkoek.

- **Eskolaren autoritate morala areagotzea. Hezkuntzako profesionalen ematea hitza.** Eskola ez da gizartearen arazo eta gaitz guztien panazea. Eskola da xede eksklusibo gisa hezteke duen erakunde bakarra, irakastea edo sozializatzea baino harantzago. Bertan hezkuntzako profesionalak dira adituak, hezkuntzari buruz dakitenak, eta hortaz, horiek balioetsi behar dira eta entzun egin behar zaie.

- **Bizikidetasunerako eta demokraziarako balioak eta bizitzarako trebetasunak barne hartzea jakintza-arlo bakoitzeko curriculumean.** Irakasle guztiek, ikastetxeak eta hezkuntza-komunitate osoak inplikatu behar dute horretan sistematikoki. Horretarako, balio horiek esplizituki adierazi behar dira ikastetxeen hezkuntza-proiektuetan, curriculum-proiektuetan eta urteko planetan, hezkuntzaren funtsezko xede gisa ebaluatu ahal izateko.

Jarduerak

Ekin zaio jada bideari. Urratsak egin ditugu eta horietako batzuk garrantzitsuak izan dira gainera. Honakoak izan litezke horietan sakontzen jarraitzeko jarduerak:

7.3.1. Hezkuntza-politika kalitatean eta zuzentasunean oinarritutako ikuspegi inklusibotik bideratzen jarraitzea.

7.3.2. Inklusibitatean, zuzentasunean eta bizikidetasun demokratikoan funtsatutako hezkuntza- eta curriculum-proiektuak sustatzea, irakasle guztien, ikasleen, OOGko kideen, familien eta eskolari dagokion komunitate sozialaren oniritzia izango dutenak, hain zuzen ere.

- 7.3.3. Ikasleek eta familiek ikasteko eta irakasteko prozesuetan parte har dezaten sustatzea, eskolaren eta komunitatearen bitartekoak mugiaraziz.
- 7.3.4. Ikastetxeen hezkuntza-proiektuetan esplizituki adieraztea bizikidetasun positiborako jarreraren, portaeren eta gaitasunen inguruko hezkuntza-balioak eta -printzipioak, baita gizarte-testuinguru berrietan bizitza osoa izateko funtsezko gaitasunak ere.
- 7.3.5. Ikastetxearen urteko planean eta curriculum-proiektuetan esplizituki adieraztea helburuak eta horiek lortzeko bertako arlo guztiak antolatzeko modua, ondoren ebaluatu ahal izateko.
- 7.3.6. Gelan eta bestelako espazioetan saioak egitea gatazkak transformatzeko eta elkarrekin bizitzeko estrategiekin, betiere elkarriketan eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta eta eskola inklusiboaren ikuspegiaren baitan.
- 7.3.7. Hezkuntza-komunitateko eragileek irakatsi eta ikasteko eta elkarrekin bizitzeko prozesuetan parte hartzea eta horietan inplikatzea sustatzea, eta ingurune berean jarduten duten sare desberdinetako profesionalak koordinatzeko eta horiek elkarrekin lan egiteko espazioak sortzea.
- 7.3.8. Bizikidetasunerako eta bakerako heztearekin zerikusia duten gizarte- eta hezkuntza-proiektuak barne hartuko dituzten sareen sorrera sustatzea, eta elkarteak, boluntarioak eta eskolaren esparruaren baitan parte hartzeko bestelako moduak bultzatzea.
- 7.3.9. Eskola-egiturak eta arauak berrikustea, bizikidetasunerako eta bakerako hezten laguntzeko. Tutoretza-funtzioa hobetzea eta prestakuntza- eta jarduera-planak egitea bizikidetasunerako eta bakerako hezten laguntzeko. Hezkuntza-komunitateko taldeek gatazkei heltzeko unean eta eskolako bizitzan parte hartzeko bideak ezartzea. Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua berrikustea, jokabide negatiboak prebenitzeko eta aldatzeko, zigorra bitarteko gisa erabiltzea gaindituz. Bizikidetasunerako batzordeari esleitzea bizikidetasuna eta bizikidetasunerako eta bakerako heztea sustatzeko eta koordinatzeko funtzioa.
- 7.3.10. Irakasleak, zuzendaritza taldeak, proiektuen koordinatzaileak, orientatzaileak eta tutoreak prestatzea sustatzea eta horretarako eskaintzak egitea.
- 7.3.11. Ikastetxeei eta irakasleei laguntzea. Sentsibilizazioa, egoerak eta jarduerak aztertzea eta aurrera egiteko aukera eskain dezaketen bideak proposatzea.
- 7.3.12. Ikastetxeetan saioak egitea balioetan, parte-hartzean, bizikidetasunean, bizitzarako trebetasunetan eta abarretan hezteko programekin. Berrikuntza bereziko proiektuak sustatzea.
- 7.3.13. Ikastetxeen eta zerbitzuen sareak sortzea, esperientziak trukatzeko eta arrisku-egoeran dauden ikasleak bizikidetasunerako laguntzeko. Eskolaz kanpoko bizikidetasunari eta gatazkei buruzko programak, gizarte-bazterketako egoerei buruzko programak, komunitate-garapeneko programak eta familien lankidetzaren eta prestakuntza ahalbidetzen duten proiektuetan guraso-elkarteei laguntzeko programak sustatzea.